

EUDELEK ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAN ETA PROZEDURETAN ARAUDI BERRIA AZALDU DIZKIE UDALEI

- Gaur urtarrilaren 26an, asteartean, Euskadiko UdaLEN Elkarteak jardunaldia antolatu du Bilbon. Bertan, Estatu osoko legelari adituek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen lege berriak aztertuko dituzte.
- EUDELEN jardunaldian 300 lagun inguru izan dira, hiru lurraldeetako udaletatik etorritakoaak. Gehienak, idazkaritza, kontu-hartzailetza eta zerbitzuko buruzagitzako goi mailako funtzionarioak.
- Urte batetik bi urtera bitarteko epean, toki-erakundeek eta administrazio publiko guztiek araudi berrira egokitu beharko dute. Horrek administrazio elektronikoa lehenesten du, batere paperik gabekoa, interkonektatua eta gardena, eskubide eta betebehar gisa hartuta.
- Erreformaren bidez, herritarrek eta enpresek administrazioarekin dituzten harremanak arinagoak eta irisgarriagoak izatea lortu nahi da, eta, horretarako, prozedurak sinplifikatu eta izapidetzeko aldiak murriztu nahi dira.

Bilbon, 2016ko urtarrilaren 26an. Aurtengo urritik aurrera, administrazio guztiek araudi berria hartuko dute, eta horrek betebehar garrantzitsuak finkatzen ditu administrazio elektronikoen eta prozeduren sinplifikazioaren arloan. 2015eko urriaren onetsitako Administrazio Prozedura Erkideari eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko legeen ondorioa da dena.

EUDELEk betebehar berriei buruzko **informazioa eta orientabidea eman nahi dizkie udalei**, oro har urtebeteko epean jarriko baitira indarrean. Administrazio elektronikoen arloko alderdi batzuk izango dira salbuespena, horiek 2 urteko epea izango baitute indarrean sartzeko.

Indarrean dagoen herri-administrazioaren ereduaren erreforma handinahi honek bi ardatz osagarri ditu: Administrazioak herritarrekin eta enpresekin dituen **kanpoko harremanak** (Prozeduraren Legea, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), eta, bigarrenik, antolakuntza eta funtzionamenduaren **barne araubidea**, eta, orobat, administrazioen arteko harremanenak (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa.)

PRENTSA OHARRA

Esate baterako, Prozedurari buruzko 39/2015 Legeak ezagutzeko errazagoa den **administrazio-prozedura erkide bakarra** sortu du, gaur egun dauden prozedura berezi ugariak alde batera utzita, eta **prozedura "espres"** bat aurreikusi du, konplexutasun gutxiagoko kasuetarako.

Horrez gain, administrazio publikoekin bide elektronikoak erabiliz harremanetan jartzeko **eskubidea eta betebeharra** ezarri du lehenengo aldiz. Izapideak bide elektronikoen bidez egiteko nahitaezotasuna ezarri die **pertsona juridikoei** eta pertsona fisiko batzuei.

eAdministrazioa, erronka eta aukera

Erreforma honek administrazio publiko guztietan izango du eragina, baina bere ondorioak sakonagoak izango dira toki-erakundeetan. Kontuan izan behar da, herritarrengandik gertuen dauden instituzioak diren aldetik, udalek eta tokiko erakunde publikoek administrazio-prozeduren %60 biltzen dutela. (Iturria: [2014ko Garapen elektronikoko indizea, Eusko Jaurlaritza](#))

Araudi berria ikusita, udal-taldeek kontzientzia hartu beharko dute administrazioen funtzionamenduan, antolakuntzan eta barneko egituretan egin beharko diren **aldaketen edo eraldaketen** garrantziaz.

EUDELeko ordezkaria eta Beasaingo alkatea den Aitor Aldasorok horretaz hitz egin du jardunaldiaren irekiera ekitaldian: *"datozen urteetan administrazio elektronikoa erabiltzeko jautzia egiteko, arduradun politikoen eta talde teknikoen elkarlana eta inplikazio handia beharko dira."* Aldasorok nabarmendu du Udalok erronka hori hartu, eta aukera bilakatu beharko dutela, *"herritarrekin eta enpresekin ditugun harremanak estutzeko"*. *"Antolakuntza eta barne prozedura egokien bidez, administrazio publikoko langileek eraginkortasun handiagoz lan egin dezakete. Eta, horrela, herritarrek administrazioan duten konfiantza sendotuko da."* aspimarratu du Beasaingo alkateak.

Estatu osoko txostengileak

EUDELek Estatu osokoak diren **zazpi legegile aditu gailen** aukeratu ditu bi legeek EAEko toki-erakundeetan izango duten eragina eta ondorioak azaltzeko.

Ezarpen praktikoan **herritarrentzat** eta **enpresentzat** adierazgarrien diren berritasunetako batzuk aztertuko dira jardunaldian.

Araudi berriaren 10 ezarpen praktiko

Herritarrentzat dituen berritasun nagusiak

1- Arintasuna administrazioko prozedurak kudeatzeko, administrazioen arteko komunikazio guztiak **elektronikoak** izango baitira **osorik, prozedura guztietan** (izapidetzeko aldiak murriztuta).

2- Laguntza bide elektronikoak erabiltzeko: 'administrazio adeitsua'. Administrazio publikoak nahitaez eman behar die laguntza erabiltzaileei prozedura elektronikoetan. Adibidez, bulegoak proposatu dira, dokumentuak bide elektronikoak erabiliz aurkezten laguntzeko.

3- Irisgarritasuna. Administrazio guztien erregistro elektronikoetan **idazkiak** edozein unetan **aurkezteko** aukera ematen da, berdin dio nori zuzenduta dauden.

4- Erregistro eta artxibo elektronikoa. Bestetik, administrazio publikoan aurrez aurre aurkezten diren dokumentuei dagokienez, aurkezten diren erregistro-arloko laguntza-bulegoak **digitalizatu** beharko ditu, administrazio-espediente elektronikoan sartzeko.

5- Gardentasuna. Inbentario publiko bakar bat sortuko da, administrazio guztiei lotuta edo haien mende dauden erakunde eta entitateentzat, eta herritar eta enpresa guztiek izango dute haren berri.

6- Sinplifikazioa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako bideak sinplifikatuko dira administrazio-izapideetan, eta, adibidez, herritarrari unean bertan izapidea egiteko ematen zaizkion **hitzartutako gako elektronikoen erabilera** sustatuko da.

7- Administrazio-kargak murrizteaz gain, jatorrizko dokumenturik ez eskatzea hartzen da arau orokortzat, adibidez, errenta-aitorpena, errolda-ziurtagiriak, etab. Bestela esanda, **herritarrek ez dute dokumentuen kopiarik aurkeztu beharko**; dokumentu horiek elektronikoki erregistratu ondoren, Administrazioak behar dituen kopiak egingo ditu.

8- Isunen zenbatekoa murriztea, bizkor ordaindu edo **erantzukizuna onartuz** gero. Aukera hau prozedura guztietara zabalduko da.

Enpresentzat dituen berritasun nagusiak

9- Enpresek **bide elektronikoak erabiliko dituzte ezinbestean** administrazio guztiekin harremanetan jartzeko, Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin eta Gizarte Segurantzarekin egiten duten bezala, eta **ahalak** eman ahalko dituzte **elektronikoki** beren

PRENTSA OHARRA

ordezkariak administrazio-izapideak egin ditzaten. Lana errazago egiteko, ahalen **administrazio-erregistro** bat izango dute eskura.

10- Horrez gain, administrazio-kargak ere murriztuko dira, oro har ez baita eskatuko aurrez aurkeztutako dokumentuak berriz aurkezteko, ez eta Administrazioak berak egindako dokumentuak edota luzatutako **lizentziak edo baimenak** aurkezteko ere.